
01 04
LEZIÑANA DE OCAKO BAZTERTUTAKO MEANDROA

Inguruabar egokiak ematen direnean, meandro bat osatzen duten bi kurba ahurretatik bik egin dezakete, estututako meandro bat osatuz; ondorioz, ibaiaren emari osoa edo zati bat ibilgu berritik doa, eta luzeagoa zen zaharra, guztiz edo partzialki baztertu egiten da.

Leziñana de Oca Erriberagoiti Arabako udalerriko herri entitate bat da. Aipatutako meandroa Zadorra ibaian kokatuta dago, alegia; Ebroko adarra, eta adierazitako herriko ekialdetik 500 metrotara kokatzen da. Haren mendebaldeko sektorea Argantzu udalerrirainо iristen da, Burgosen kokatutako Trebiñurekin bat eginez.

Airetik ikusita, erdi baztertutako ibilgua zirkunferentzia irregular moduan agertzen da eta haren barruan "irla" bat atzeman daiteke. Azken hura, bertan, "Pangua irla" izenarekin ezagutzen dute, eta gaur egun, zerealen laborantza zeregin nagusia da.

Aire argazkian, begetazioak baztertutako ibilgu zaharra ezkutatzen du. Hura nabarmentzen da begetazioaren berde kolorearen eta goldatutako zelaien okre kolorearen arteko kontrastearen eraginez. GeoEuskadiko LIDAR datuetatik eratorritako Itzalen Ereduari esker ikus daiteke zer dagoen begetazioaren azpian.



MDT LIDAR Itzalak 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 512092.0686 // Y: 4733770.1882 // Z: 468 m. Argi ikus daiteke begetazioak estalitako ibilbide zaharra.